

ESAERA ZAHARRAK

Zozoak beleari, ipurbeltz
Kanpoan uso, etxean otso
Zure sekretua inork jakin ez dezan, inori ez esan
Urrutiko intxaurrek hamalau, hurbildu eta lau

Denek diote kale hotzetan
beldurturik **nabilela**
lotsak ez baitit gozaten uzten
jende arteko **epela**.
Hala ere ez pentsa jokabidea
dudanik beti **horrela**
harroputz handi bilakatzen naiz
amarekin **nagoela**.



Doinua:

***Gazte denboran sasoia eta
Zortziko handia***

Esaera zaharra

Telebistako futbol algarak
badu sua eta **garra**
kolore biziz ageri zaigu
jokalarien **giharra**.
Baina pantailan hain distiratsu
ikusten dugun **izarra**
kalean dugu gu bezalako
txikia eta **meharra**.



Doinua:

***Esplikatzera noa kontuak
Zortziko handia***

Esaera zaharra

Lagun bati bidali
nion **argazkia**
osorik erakutsiz
nire azal **eztia**.
Facebook-era igotzeko
hartu du **astia**.
Ekimena irten zait
nahiko **garestia**
Txinan ere begira
dut jende **guztia**.



Doinua:

***Itziarren semea
Hamarreko txikia***

Esaera zaharra

Mateko azterketa
berriz **suspenditu**
Jon barrezka hasi zait
eta ez da **gelditu**.
Gero beraren nota
jasota **harritu**
eta bere hitzak jan
behar izan **ditu**
berak nire antzera
ez baitu **gainditu!**



Doinua:

***Ai gure antzinako
Hamarreko txikia***

Esaera zaharra
